

Noaua !!



Igande honetan,
Erle Eguna



Pagazpe Pilota Elkartea jaio da

Andatzpe eta Peña Pagola taldeak bilduko ditu bere baitan

IX. ERLE EGUNA

2007ko azaroaren 4a



10.00^{etatik}
aurrera

• AZOKA

• EZTI ezberdinen DASTAKETA

• Euskal Herriko VII. EZTI LEHIAKETA

• GOZOGINTZA lehiaketa herrikoia

• ENKANTEA



Basque Country

Basque Country



Noaua!!
www.noaua.com

Pirritx eta Porrotzek
ezin yogurtarekin
hanturako dute

Duela 10 urte izan zen !!

“Hilerriak lorez beteko dira”

Hala zioen 1997ko urriaren 31n banatu genuen aldizkariak. Atzera begira jarri garen honetan, orduko ohiturak gaur egun bere horretan jarraitzen duela ikusi dugu. Izan ere, Santu Guztien Egunean halaxe esnatuko dira hilerriak, lorez beteak. Baina duela 10 urte ez bezala, oraingoan hilerria berri dugu. 1997ko urriaren 31an (29. zenbakia) aipatzen genuen bezala, “herriko kanposantua txiki geratzen ari da. Jendea hilerrian gora eta behera ikustean konturatzen gara badirela hainbat urte kanposantua txiki geratzen ari zaigula. Eta ia guztiok badakigu hilerri berri bat egiteko proiektua badagoela. Ez daki-guna, ordea, noiz egingo den”.

Idoia Torregarai egindako erreportajearen hala zioen Joxe Antonio Altuna orduko alkateak: “jada lurra erosi

ditugu eta aurtengo aurrekontuetan aurreikusten da proiektua. Hasiera batean, 5.000 metro koadro erosi behar genituen, baina lurren jabeak behin saldu ezker guztia saldu nahi zuela eta azkenean 13.000 metro koadroko lur saila eskuratu dugu. Hilerriaren inguruan, lur sail ederra geratuko da”.

Datu curioso bat ere aipatzen zen duela 10 urte argitaratu genuen erreportajearen. 220 milioi pezeta behar ziren hilerri berria egiteko. Diru askotxo. Aurrera egiteko, Urbil zabaltzearen zain zegoen udala. Joxe Antonio Altuna alkateak horrela arrazoitzen zuen: “hilerri berriaren eraikuntza Eroskiko proiektuaren arabera dago. Datorren urtean (1998az ari da) Eroskik izango luke eragin handiena guretzat. Horrela, diru horrekin egingo genuke kanposantua”. Ez al da bixia datua?



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Borda Berri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

NOAUA! KULTUR HAMABOSTALDIA **5. OR.**

YOLANDA ARRIETAREN IKASTAROA **6. OR.**

IGANDEAN, ERLE EGUNA **8. OR.**

ANDONI SAGARNA, EUSKALTZAIN OSO **10. OR.**

KIROLDEGIKO BAZKIDEEN ORDEZKARIA **12. OR.**

NOAUA! TXIKI **14. OR.**

PAGAZPE, PILOTARIEN BILGUNE BERRIA **15. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

Eskerrak bideoari?

Dagoeneko irudiarenean baino bideoen gizarteak gaudela dirudi. Azken aldian sarean zintzilikatutakoak edota segurtasun kamerek grabatutakoak zeresan ugari ematen ari baitira. Azkena, paradoxa badirudi ere, garraibide publikoaren efizientzia zaltantzan edota arazo ugari eragiten ari den Bartzelonatik iritsi zaigu.

Kuriosoa da, gertakari honek izan duen oihartzuna. Bitxia, urria hasieran grabatutako bideo bat, handik ia hiru astera inoiz bizi izan ez den egoera bat bezala aurkeztea. Salatzekoa da, gogortasun osoz, metroko bagoi batean mutiko batek berdin dion herrialde bateko neska bati eman dion jipoia. Zalantzarik ez da, neurriak hartu behar dira horrelako kasuetan. Salaketa hutsean gelditu ez, baizik eta aurrerantzean, horrelako ekintzak berriro errepika ez daitezen.

Baina hortik aurrera etorri den guztiak ezin jakin zen-bateraino lagunduko ote dion neska gaixoari aurreran-tzean. Bere pertsonaren aurkakoaz gain, bere intimitate-aren aurkako “erasoa” ere jasan behar izan du eta. Mila bider bota dute bera zoritxarreko protagonista zuen

bidea, behin ikusita nahikoa ez balitz bezala. Auzitegi sarreran ere komunikabideak gainera etorri zaizkio. Eserita zegoen beste bidaiariak ere epelak entzun behar izan ditu. Ezohikoa izan da, goi kargudun politikari eta bestelakoek gai honetan muturra nola sartu duten ikus-tea. Bestetan, hitz erdirik esaten ez dutenean.

Gogorra bada ere, askotan hildakoak egon direnean ere ez dira erasotzailea kartzelaratzeko hainbeste eskaera egin. Nire uste apalean, helburua pertsona horren jarre-
ra aldatzea bada behintzat, horretarako lekurik egokiena ez denean. Baina kalean da, eta nahi gabe jada ezagun bihurtu den neska, beldurra uxatu nahian. Bizitzen, uzten dioten neurrian.

Istoriaa ez da hor amaitzen, baina beno, hori guztia jada atzoko kontua da. Gaur inor gutxi gogoratuko da neska honetaz ezta?. Eta hala ere, zoritxarrez zorteduna izan dela aipatu behar. Badirudi gertatu den guztia, bide-oak eragin duela eta. Baina bideorik egon ez bazen zer gertatuko zen? Are okerragoa eta penagarriagoa oraindik. Ez zen erasoaren berririk izango.

Ika MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, **NOAUA!k** IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. **NOAUA!k** ez du bere gain hartzen Ika MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: azaroak 9. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 5.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen
ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien
sustapena, euskararen normalizazioa, urte-
ko egutegia, beka deialdiak, NOAUA!
Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

Bazkide egin zaitez!

Noana /

36 euro urte osorako

Izena: _____

1. Abizena: _____

2. Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefona: _____

E-posta: _____

[illegible]

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Datorren astean hasiko da NOAUA! Kultur Hamabostaldia

Udazkenarekin batera iritsi ohi da NOAUA!k antolatzen duen Kultur Hamabostaldia. Urtez urte sendotzen joan da. Eta Sutegi martxan dagoenetik, indartu ere egin dela esan daiteke. Lau dira Kultur Hamabostaldiak egin dizkigun proposamenak, zein baino zein erakargarriago.

Antzerki saio batekin hasiko da Kultur Hamabostaldia. Lakrikun taldeak zabalduko du NOAUA!k antolatu duen zikloa. "Eman bira" antzezlanarekin hurbilduko dira azaroaren 8an osteguna Sutegira. 20:00etan hasiko da antzezlan eta sarrerak, 5 eurotan, dagoeneko salgai dira Txirristran eta NOAUA!n (NOAUA!ko bazkideek 3 eurotan erosi ahal izango dute sarrera, baina aldez aurretik eta soilik NOAUA!ko egoitzan).

Goseren doinu berritzaileak

Gose taldeak jarriko dio doinua aurren go Kultur Hamabostaldiari. Arrasateko hirukote hau 2004an hasi zen trikitixa eta doinu elektronikoekin jolasean. Elektro-



GOSE TALDEAREN KONTZERTUA, azaroak 9 ostirala, 22:30ean. Sutegi.

jazza, tangoa, afro-brasildar perkusioak panderoarekin elkartuta batukada eginez, technoa, punka eta hard corea estiloak nabarmentzen dira euren kantuetan. Denbora gutxian, oihartzun handia izan du Gosek. "Eutsi!" pelikularen soinu bandan hartu du parte eta Carlinhos Brownk Espainian egin duen azken

biran, telonero bezala aritu da Gose. Azaroaren 9an, Sutegin ikus ahal izango ditugu. Sarrerak aldez aurretik erosita, 10eur o (Txirristran eta NOAUA!ko egoitzan). Egunean bertan, 12 euro. NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete sarrera, baina NOAUA!ko egoitzan eta aldez aurretik erosiz.

"Eman bira", antzezlan

Zer gertatzen da zerbaiti bira ematean? Bestaldea ikusten dela. Eta zer dago bestaldean? Denek dute beste alde bat, bizitzak ematen dituen bueltekin batzutan agertzen dena. Sorpresen bitartez, Lakrikun taldeak bere bestaldea erakusten du "Eman bira" antzezlanean.



LAKRIKUN TALDEAREN ESKUTIK, azaroak 8 osteguna, 20:00 Sutegi.

"Apaizac Obeto", itsasoa, hitzak, irudiak

Apaizac Obeto espedizioak Auskal baleontziek XVI eta XVII. mendeetan Kanadan izandako ibilerak biziberritu ditu. Espedizioako kideak historiaren zati hori azturaren itsas hondotik atera nahi dute, hitzez eta irudiz osatutako emanaldi berezi honen bidez.



JON MAIA BERTSOLARIAREN ESKUTIK, azaroak 13 asteartea, 20:00. Sutegi.

"Gizona ez da txoria", txotxongiloak-antzerkia

Txotxongilo eta hezur haragizko aktoreen arteko elkar-rrizketan sakontzea da saio honen helburu nagusia. Eszenatokian txotxongilo, objektu eta aktoreen arteko lengoaia komun bat erabiltzea. Sutegin, orain arte ikusi ez den ikuskizuna.



DEJA BU PANPIN LABORATEGIAREN ESKUTIK, azaroak 16 ostirala, 20:00. Sutegi.

Seme-alabei ipuinak kontatzeko tailerra eskainiko du Yolanda Arrieta idazleak

Irudiak, irudimena lantzea. Helburu hori du “Iruditik hitzera” tailer-bilguneak. Yolanda Arrieta irakasleak, mundu horretatik abiatuta, gurasoak seme-alabei istorioak kontatzera bultzatu nahi ditu. Horretarako behar dituzten baliabideak irakatsiko ditu Sutegira hurbiltzen diren gurasoei hilaren 9, 16, 23 eta 24an.

NOAUA! “Iruditik hitzera”. Sormen tailer bezala defini dateke?

Yolanda Arrieta. Tailer hitzaldia da. Informazioa emango dugu liburuen merkatu handi horretan ez galtzeko eta norberak kontuen atzean (narrazioan, poesian) zer gordetzen den ikusteko baliabideak eskainiko ditugu, jolasen bidez...

N. Zer dago atzealde horretan?

Y. A. Kontuak esateko eta mundua ikusteko modu bat. Euskaraz oso ondo asmatua dugun hitza dugu; irudimena, irudiak sortzeko ahalmena. Eta batez ere haur literaturan, uste dut irudiak indar handia duela, ez ilustrazio aldetik, baizik eta barne irudiak. Testu batek barnean sortzen duen irudi potentzialaren arabera neurtzen da balio literarioa.

YOLANDA ARRIETA

“Azken 20 urteotan asko landu da euskal literatura eta gauza on asko dago. Orain gozatzea dagokigu”

N. Guraso eta seme-alaben arteko zubi-lan gisa literatura planteatzen duzue?

Y. A. 0-6 adin tartea jarri dugu. Hasierako ume txikien gurasoak erakarririk nahi ditugu, haiengan sortzen den ilusioa baliatuta. Adin horretatik gora, seme-alaben gurasoek gogoia badute,



HAURRAK DITUZTEN GURASOEI ZUZENDUTAKO TAILERRA DA, HILAREN 9AN ABIAN JARRIKO DENA. IRUDIMENA LANDU ETA GURASOEK SEME-ALABEI ISTORIOAK ZER MODUTAN KONTATU JAKITEKO HAINBAT TRIKIMAILU IRAKATSIKO DITU ARRIETAK.

datozela baita. Zubi lan horretan, umeentzat ez, umeekin helduok zer egin azalduko da. Literatura horren barruan ikustea zer dagoen, eta gero zu umearekin jarri nahi duzun lekuan. Liburua tresna bat da. Tresna horrekin egingo duzuna zeure esku dago neurri batean.

N. Beharrezko tresna beraz, liburua?

Y. A. Azken hogeitaz urteetan, asko landu da euskal literatura eta gauza on asko dago. Orain gozatzea dagokigu, sortzailearen eta jasotzailearen lekuan jartzea. Ipuin luze bat agian ez, baina hor daude olerkiak. Aukera ezin hobea dira haur txikiekin lantzeko. Etxean norbere haurrekin ahalik eta errazen eta gustukoena izan dadila lana.

N. Etxean beraz, literatur txoko bat izatea ez legoke gaizki?

Y. A. Ondo legoke, ohera joan baino hamar minutu lehenago. Idealena da, eguna amaitzen delako. Umeak bakarrik joan behar duen leku ezezagun horretara, gauera, iluntasunera joan behar du. Horra sartzeko nolabaiteko agur goxo bat izan daiteke. Ez da hain zaila, norbere barrutik hasten da dena.

“Iruditik hitzera” tailerra azaroaren 9an hasiko da

Datorren ostiralean, azaroak 9 ekingo zaio “Iruditik hitzera” tailerrari. Hil honetako hiru asteburuetan zehar izango den ekimena 0-6 urte arteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua badago ere, adin tarte horretatik gorako seme-alaben gurasoek ere parte hartzeko aukera dute. Sutegi udal liburutegian izango dira saioak. Ahozkotasuna, istorioak asmatzeko trikimailuak, irakurketa edota gorputz atalen erabilera egokiak irakatsiko dira tailer honetan.

NORENTZAT: 0-6 urte arteko haurren gurasoentzat.

NOIZ: azaroaren 9, 16, 23 eta 24an.

ORDUTEGIA: 14:45. Hilaren 24an, 12:00etan.

INFORMAZIOA: 943 360 692.

ANTOLATZAILEA: Usurbilgo udala.

Usurbilgo Antzerki Tailerra, martxa onean

Usurbilgo Antzerki Tailerrak nobedade batekin baino gehiagorekin hasi du hiru-garren ikasturtea. Alex Tello usurbildarra da irakasle berria, Santueneako Elkartearen biltzen dira eta parte hartzea hazi da. Marian Goenagarekin batera, Yolanda Arrieta da antzerki tailerreko sustatzailea. Hilabete barru zabalduko den Durangoko Liburu eta Disko Azokan ere Arrietaren lanik aurkitu ahal izango da.

NOAUA! Zer moduz doa Antzerki Tailerreko ikasturte berria?

Yolanda Arrieta. Marian Goenagak eta biok duela bi urte ekimena abian jarri ostean, bertan parte hartzeko deialdia zabaldu behar zela ikusten genuen. Baina horrek kudeaketa lan handiagoa zekarrela konturatuta, gu oso mugatuta geunden. Horregatik, Santuenea Elkartekoei eskaini genien. Guk zubi

lana egingo dugu gabonak arte, hortik aurrera, elkarteak tailerraren ardura hartu dezan herri mailan.

N. Zenbat jende dabil?

Y. A. Bi talde osatu dira aurten. Adinaren arabera osatu dira; 9 urteko bederatzi ikasle eta 11-12 urte artean beste hainbeste. Ostiral iluntzetan elkartzen dira Santueneako lokalean.

N. Eta gustura gainera?

Y. A. Antzerkigintzak arlo guztiak lantzeko aukera ematen du; harremanak eta irudimena lantzeko oso ona da, norbere latsa kentzeko eta norbere buruarekin deskubrimenduak egiteko.

N. Durangoko azoka hilabete barru. Yolanda Arrietaren lanik aurkituko al dugu bertan?

Y. A. Ipuin bilduma berri bat hasiko dute Ibaizabal argitaletxean. Irakurle



IAZ TAILERREAN PARTE HARTU ZUTEN BEGIRALEA ETA GAZTEAK.

hasi berrientzat, irudi askorekin. Horretarako ipuin bat idatzi dut eta Aitziber Alonsok ilustrazioak egin ditu. Lana oso polita izan da, elkarlan oso polita. Bestalde, Lea Artibaiko Hitzari laguntzeko bildumarako ere beste ipuin bat prestatu dut.

ARTITZ GORRITI

Haur Eskolako masaje tailerretan izen emateko epeak zabalik segitzen du

Haurrei maitasuna ahalbidertzeko Oinarriak Eraikiz Haur Eskolako guraso elkarteak masaje tailerrak antolatu ditu. Horietako bi martxan dira dagoeneko. Gainerako biak hilaren 14an hasiko dira eta izen ematea zabalik dago.

Joxe Ramon Mauduit psikologoak koordinatu ditu tailerrok. Hain zuzen, adin tarteka antolatu dituzte tailer horiek. 2-3 urte artekoei eta haien gurasoei zuzendutakoa urriaren 31n hasi zen eta azaroaren 7an amaituko da. Baita espresuki helduentzat antolatu dutena ere.

Bi ikastaro, abiatzeke

Baina esan bezala, oraindik bi

masaje tailer hasi gabe daude. 0-1 eta 1-2 urte arteko haur eta gurasoentzako gainerako bi tailerrak azaroaren 14an hasiko dira eta hiru saiotan banatuko dira; azaroaren 14, 21, eta 28koan. 0-1 urtekoen kasuan, 16:30etan hasiko dira saioak, 1-2 urtekoei zuzendutakoa 18:00etan.

Izen ematea zabalik

0-1 eta 1-2 urteko haur eta haien gurasoentzat Oinarriak Eraikiz guraso elkarteak antolatu dituen ikastaro banatan parte hartzeko aukera dago. Izen ematea zabalik baitago oraindik. Aipatutako tailerretako batean parte hartzeko 10 euro ordaindu behar dira.

Informazio gehiago honako telefono zenbakian: 943 374 061.



Pello Añorga ipuin kontalaria Sutegin

Udazken parteko lehen bisita egin du Pello Añorga ipuin kontalariak. Arrakastarik falta izan ez duen oiartzuarra ordea datozen asteetan berriz bueltan izango da.

Pasa den urriaren 30ean liburutegira joaterik izan ez zuenak lasai egon daiteke, azaroan bitan itzuliko baita. Egutegia hartuta, honako egunak hartu behar dira kontuan; azaroaren 8a eta 20a.

Erle Egunak

kaxko aldeia goxatuko du igandean

Badator urteko egunik gozoena. Igande honetan, azaroak 4, IX. Erle Eguna ospatuko da frontoian eta inguruetan. Azoka, ezti eta gozogintzako lehiaketak, enkante sonatua eta erakusketa. 7-10 urte arteko haurrei zuzendutako ekitaldirik ez da faltako. Marrazki lehiaketan edota Askatasuna plazan polinizazioari lotuta izango den jokoan parte hartu ahal izango dute.

Azaroa hasierarekin batera, jada hemen dugu erleen jaia. Frontoia, Dema plaza edota Astakatasuna plaza erleez edota gozogintzako postuez mozturrotuta esnatuko dira. Iaz egin zuen eguraldi bikainarekin batera, erle bizidunak agertzea oso seinale ona litzateke, baina era berean zoritxarrez zaila, aurten erleak desagertuta baita-biltza.

Horrek ezti ekoizpenean eragin du zuzenean, baina ez da IX. Erle Eguna ospatzeko eragozpena izango.

ERLE EGUNA

“Askatasuna plazan, polinizazioaren inguruko joko hezigarrian parte hartzeko aukera izango da”

Goiz pasa gozoa

Ezti edota gozogintzako lehiaketan parte hartu behar dutenek adi; goizeko 9:00-10:00 artean aurkeztu behar baitituzte euren produktuak frontoiko harrera mahaian. Jaialdi amaieran erleek jakinaraziko dituzte sarituen datuak.

Ordura arte, postu gozo asko egongo da Dema Plazan; besteak beste, ezti osagai nagusi duten produktuak. Askatasuna plazan, polinizazioa nola egiten den ikasteko joko hezigarrian



GOIZEKO 11:00ETAN HASIKO DIRA EZTI LEHIAKETA ETA AZOKA.

parte hartzeko aukera izango dute gaztetxoek. Erleei buruzko informazio

panelak izango dira. Girotzeko baita bertsolariak ere.

Azoka, ezti eta postre lehiaketak, haurrentzat joko hezigarriak...

9:00-10:00 Ezti eta gozogintzako bilketa.

11:00-14:00 Erakusketa: erleak, argizaria, panelak, postuetako salmenta, musika, bertsolariak, marrazki lehiaketa...

13:30 Erleek beraiek ekarritako sari banaketa: ezti lehiaketako irabazleak, gozogintzako irabazleak, marrazki lehiaketako irabazleak, ezti sarituen enkantea.

14:30 Aginaga sagardotegian bazkaria.

Ezti eta gozogintza lehiaketak

Euskal Herri mailako VII. Ezti Lehiaketa bi modalitatetako izango da; loreanitz eta lore bakarra. Ezti sarituekin enkantea egingo da, lehiaketa amaitu ostean. Ez da, ordea,

lehiaketa bakarra izango. Bestalde, ezti derrigorrezko osagaia duen postre herrikoien lehiaketa ospatuko da.

Lehiaketa batean zein bestean parte hartzeko produktuak goizeko 9:00-10:00 artean frontoiko harrera mahaian aurkeztu beharko dira.

Haurrentzat...

Sutegiko erakusketa aretoan 3-5 urte arteko haurrek egindako marrazkiak ikusgai. Bestalde, loreen polinizazioa nola egiten den erakusteko jokoan parte hartu ahal izango dute 7-10 urte arteko gaztetxoek Askatasuna plazan.

Bukatzeko bazkaria

Aginaga Sagardotegian izango den bazkariarekin amaituko da eguna. Txartelak egunean bertan salgai izango dira, 22 eurotan.

Julian Urkiola, Erle Eguneako antolatzailea

“Udaberri sarrerarako erleen %40a ez zegoen”

Iazko Erle Egunean erle artifizialekin batera, benetako asko ikusi ziren. Aurten, aldiz, irudi bera errepikatzea kostako da. Oraindik argi ez dauden arrazoiak tarteko, desagertuta baitaibiltza. Nora joan dira? Julian Urkiolak Erle Eguneako antolatzaile eta Gorostitxo eztiolako kideetako batek xehetasun gehiago.

NOAUA! Non dabilta erleak, diote-nez desagertuta daude ezta?

Julian Urkiola. Ez dakigu zer ari den gertatzen. Ikerketak egiten ari dira, Pastranan (Guadalajaran), Oviedoko laborategietan. Konkretuki ez dago ezer. Beraiek esaten dute, ateratzen dela kanpora, biriketako gaixotasuna dutela eta gero ez direla gai etxera bueltatzeko. Horren espezie berri bat atera da, hori baino gaiztoagoa oraindik, lehen zegoena inmundizatu egin baita. Aldaketa klimatikoa ere aipatzen da... Ez dakigu. Denetarik esaten da.

JULIAN URKIOLA

“Einsteinek zioenez, erlea naturatik desagertuko balitz gu zazpi edota zortzi urteetan desagertuko ginateke”

N. Erleak desagertu direla errealitatea da?

J. U. Bai. Udazkenean tratamendua jartzen zaio. Sei bat astez edo egon behar du. Hori kentzera joan ginenean, jatena eta ezia bazegoen, baina erlerik ez. Hiruzpalau falta direnean, ez diozu garrantzirik ematen. Baina denbora pasata, gehiago falta direnean bai. Udaberri sarrerarako erleen %40a ez zegoen. Eta uda ere oso txarra izan da.

N. Galera handiak?

J. U. Erlezain txikiak gara. 40 erlauntz ditugu. Profesionalak 400-500. Haiei %80a kentzen badiozu, pentsa zer galera den. Galera oso handia da, ezia ez dute-



UGARTETIK GERNIKA IBILBIDERA, IKASTOLA ONDORA IGARO DA EZTIOLA ELKARTEA.

lako egin eta erlea bera galdu delako. Urtea galdu duzu eta baita hurrengoa ere, erleak indartu behar baitira.

N. Erle Egunean moduren batean eragingo du?

J. U. Antolaketa lanetan ez du eragin. Jendea hainbeste ez tirekin ez etortzean eragingo du ordea. Gutxi dutelako, nahiz eta Usurbilera etortzeko ez duen asko behar. Ezti pota bat soilik eskatzen zaie.

N. Erleekiko egon daitekeen irudi txar hori aldatzen ari al da?

J. U. Bai. Ohitu eta konturatu behar dugu, naturan gu baino askoz zaharragoak direla erleak. Gu ari gara haiei lekua kentzen. Bestalde, erleak zer nolako onura egiten duen kontuan hartu behar da; erleen familiak dena polinizatzen du %82an. Einsteinek zioenez, erlea naturatik desagertuko balitz gu zazpi edota zortzi urteetan desagertuko ginateke. Ez litzateke lorerik, ezta fruiturik izango.

N. Eztiola elkartearen nobedadeak; lokal berria duzue?

J. U. Ugartetik Gernika ibilbidera igaro gara, ikastola ondora, Udalak bertan lokala utzi digu eta. Bertan, erleen mundua erakutsi nahi diegu haurrei. Ikastolatik hasita, hortik erakutsi behar da. Lokal hartan museo bat bezala jarriko

dugu, haiei erakusteko eztiolan ezia nola ateratzen den eta zer prozesu egiten den. Erleen mundua erakutsiko da; erlea nolakoa den, zer egiten duen... Gainerako herritarrentzat ere irekia.

ARITZ GORRITI

Ostegunean, Artisautza Azoka

Erle Eguna ez da zubi luze Ehonearako programatua zegoen ekitaldi bakarra. Urtero legez, azaroako lehen egunean ospatu baita Aitzaga Kultur Elkartek antolatu ohi duen Artisautza Azoka. Hamasei artisau euren produktuak erakusgai dituztela: bitxiak, bas-toiak, harriak, eskulturak, pintura, otarrak... Eta tartean baita usurbildar bat ere: Joxe Luis Elexpe, “Pelex”.

Udalaren eta Andazpe elkartearen laguntza jaso du Aitzaga Kultur Elkartek, antolaketa lanetan.

Auzitegi Nazionalaren aginduz egoitza bi urtetarako itxi arren, kultur elkarteak kideek ekimenak antolatzen jarraitzen dute.

Andoni Sagarna, euskaltzain oso

Euskaltzaindiaren 26. aulkiaren jabe da Andoni Sagarna. Lehengo astean Miramongo Teknologia Parkean eskaini zuen sarre-ra-hitzaldia eta gero, Euskaltzaindiaren domina eta diploma jaso zituen. Markel Olano ahaldun nagusiarekin eta Euskaltzaindiako kideekin batera, euskararen munduko aurpegi ezagun ugari bildu zen Miramonen. Han zeuden, besteak beste, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkaria, JoxAnton Artze, Joan Mari Torrealдай, Felipe Juaristi eta Patri Urkizu idazleak eta Xanti Jaka Elkarreko arduraduna.

Protokoloak hala aginduta, Markel Olano ahaldun nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak lagunduta sartu zen Miramongo Teknologia Parkearen areto nagusira. Ohorezko dantzaren ondoren, Andoni Sagarna euskaltzain oso izendatzeko ekitaldia hasi zen.

Senide, lankide, euskaltzain eta agintarien babesean hasi zuen bere hitzaldia Andoni Sagarnak. "Euskara eta informazioaren teknologiak. Egungo egoeratik etorkizunera begira" izeneko hitzaldian, hizkuntzaz eta teknologiaz mintzatu zen (hitzaldia, oso-osorik, PDF euskarrian aurkituko duzue noaua.com webgunean).

ANDONI SAGARNA, EUSKALTZAIN

"Ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta domina eman zizkion"

Horrelakoetan ohiko den legez, beste euskaltzain batek eman zion erantzuna Andoni Sagarnaren hitzaldiari. Kasu honetan, Jean Louis-Davant euskaltzainak egin zituen "aita ponteko" lanak. Sagarnaren ibilbideaz eta bizitzaz hitz egin zuen eta euskaltzain berrien lana horrela definitu zuen: "adin bateko euskaltzainak idazle orokorrak izan gara. Orain, aizkolarien ondotik, zizelkariak behar ditugu, euskara batuaren bozeto sendoari aurpegi fin eta gazte bat emateko".



ARGAZKIAREN ERDIAN DA ANDONI SAGARNA. EZKERREAN DU ANDRES URRUTIA EUSKALTZAINBURUA ETA ESKUBITARA MARKEL OLANO AHALDUN NAGUSIA.

Ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta domina eman zizkion.

NOAUA!ko lehen lehendakaria

Andoni Sagarna Egian jaio zen 1947. urtean baina Usurbilen bizi da. 1987. urtean izendatu zuten euskaltzain urgazle. Euskaltzaindian Hiztegi Batuko lan taldean aritu zen azken urteotan, besteak beste, 1989tik 1993a arte. Bestalde, Euskararen Aholku Batzordeko kide izan zen. Baita NOAUA! Kultur Elkarteko lehen lehendakaria ere.

Etxekoan berotasuna

Herritar asko izan ziren Andoni Sagarnak eskaini zuen sarrera-hitzaldian, tartean, Eustakio Arrojeria (Elhuyar aldizkariko zuzendari izandakoa), Xabier Arregi EHUKo irakasle zubietarra, JoxAnton Artze idazlea, Joan Mari Torrealдай Jakin aldizkariko zuzendaria, Martin Larrañaga (Usurbilgo alkatea izandakoa) eta Xabier Mikel Errekondo, egungo alkatea. Euskaltzaindiako kideena ez ezik, senide, lankide eta lagun berotasuna ere jaso zuen.

Joan Mari Torrealдай euskaltzain oso izateko proposatu dute

Andoni Sagarna euskaltzain oso izendatu zuten egun berean jakin genuen Joan Mari Torrealдай eta Lourdes Oñederra euskaltzain urgazleak euskaltzain oso izateko proposatuak izan zirela. 29. eta 30. zenbaki-hutsarreak beteko dituzte, hurrenez hurren.

Jose Antonio Arana Martixa, Miren Azkarate eta Andres Urrutia euskaltzain osoek proposatu zuten Joan Mari Torrealдай 29. zenbaki-hutsarterako.

Azaroaren amaieran izango den osoko bilkuran egingo dira proposamen horiek onartu ala atzera bota erabakitzeko bozketak. Bien bitartean, euskaltzain osoek aukera dute bi zenbaki-hutsarte horietarako beste proposamenik aurkezteko, egoki irizten badiote.

Joan Mari Torrealдай (Forua, Bizkaia, 1942) euskaltzain urgazlea da 1975eko ekainaren 27az geroztik, eta Jakin aldizkariaren zuzendaria 1977az geroztik. Euskaldunon Egunkariaren Administrazio Kontseiluko kide izan zen hasieratik.

Kutxak eta udalek euskara hitzarmena sinatu dute

Buruntzaldeko udalek eta Kutxak euskararen inguruko hitzarmena sinatu zuten pasa den urriaren 26an. Kutxako, udaletako eta Foru Aldundiko ordezkariak bildu ziren prentsaurrekoan.

Lehendik hasitako bidea indartzen du hitzarmenak sinatzaileen arabera. Bezeroei kalitatezko zerbitzua eman nahian, aurrerapauso berri bat; zerbitzua euskaraz eskaintzea. Horren haritik, Kutxako Zuzendari Nagusiaren esanetan, "euskara laneko tresna eta bezeroen eskubide bihurtzen da".

Positibotzat jo zuten guztiek emandako aurrerapausoa. Kutxako arduradunek lehen konpromisoa bezeroekin dutela adierazi zuten; bigarrena lan taldearekin. Karlos Ruiz Giza Baliabideetako zuzendari nagusiaren hitzetan, garrantzitsuen

"hitzarmena jendaurrean aplikatzea da".

Orain arte udal langile eta teknikariek egindako lana eskertu nahi izan zuen udal sinatzaileen izenean, Hernaniko alkate Marian Betialarrangoitiak. "Herritarrak kutsatu nahi ditugu, euskaraz bizi daitezen", adierazi zuen. Beti ere animatu, behartu gabe. Eman beharreko beste pauso askoren artean kokatu zuen Kutxarekin sinatzekoak ziren euskarari lotutako hitzarmena.

Etorkizunean beste erakunde finantzarioen kalitatea hobetzeko ispilu edo eredu bihurtzen zela adierazi zuen Foru Aldundiko Kultura Diputatu Maria Jesus Aranburuk. Elkarlanean aurrerapausoak emateko konpromisoa hartuta, Administrazioa euskaldundu beharraz ere mintzo zen. Bere esanetan, "utopietan sinistu behar da, errealitatean aurrerapausoak emateko".



USURBILGO ALKATEA ETA KUTXAKO ORDEZKARIA, HITZARMENA SINATZEN.

Jon Bollar, UEMAko lehendakari berria

Udal hauteskundearen ondoren alderdiek hitzartu zuten bezala, EAE-ANVk hartu zuen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) lehendakaritza, aurreko larunbatean Zestoan egindako Batzar Nagusian. Jon Bollar Aulestiko alkatea izendatu zuten lehendakari, eta Jesus Mari Goikoetxea EAko Arteako hautetsiak beteko du lehendakariorde kargua. EAE-ANVk lau ordezkari izango ditu zuzendaritzan, eta EAK, Aralarrek eta independenteek ordezkari bana. EAJ-PNVk hiru ordezkari izan behar zituen, baina Zestoako bileran alderdi horretako hautesiek alde egin zuten, eta ez zituzten euren karguak hartu.

184 urteko zigor eskea

Egunkariako inputatuentzat

184 urteko espetxe zigorra eta 234.530.008 euroko isuna eskatu du "Dignidad y Justicia" herri akusazioak Egunkariako auzi ekonomikoan inputatutako Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Jose Mari Sors, Fernando Furundarena, Mikel Sorozabal, Begoña Zubelzu eta Ainhoa Albisurenentzat. Hain zuzen, bakoitzarentzat 26 urtetik 13 urtera bitarteko zigorrak. Horretaz gain, 5.481.835 euroko zorraren arduradun zibil egiten ditu, eta kopuru hori ordainarazteko eskatu.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 45
943 37 09 13

Oldemagui - Gascón

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Oiardo kiroldegiko bazkideen ordezkaria aukeratzeko garaia da

Duela bi aste aipatu genuen bezala, Oiardo kiroldegiko bazkideen ordezkaria hautatzeko garaia da. Azaroaren 5ean, hautagaiak aurkezteko epea irekiko da. Hautagaia bozkatzeko eguna, ordea, azaroaren 25a izango da. Gogoan izan kiroldegiko bazkide direnek dutela botoa emateko aukera. Azken urteotan, Jokin Zubiaurrek izan du bazkideak ordezkatzeko ardura. Baina ez da kargura berriz aurkeztuko. Bazkideen ordezkariak duen zereginaz eta azken lau urteotako lanaz galde egin diogu Jokin Zubiaurri.

NOAUA! Azken urteotan, Kirol Patronatuko kide izan zara, Oiardoko bazkideen edo erabiltzaileen ordezkari gisa. Zein funtzio betetzen ditu bazkideen ordezkariak?

Jokin Zubiaur. Labur esanda, bazkideen ordezkaria naizenez bazkideen interesak defenditu behar ditut Kirol Patronatuan.

Horregatik, zeregin finkorik ez dut, esan genezake patronatuan hartzen diren erabakietan bazkideon iritzia eman behar nukeela. Praktikan ez da posible bazkideekin elkartzea eta erabakiak adostea. Horrela nire iritzia ematen dut.

ORDEZKARIAREN ZEREGINA

“Kexak izan direnean eramane izan dut bazkideen ahotsa patronatura. Hortan inportantea da bazkideen ordezkariaren lana”

Bestalde, kexak daudenean orduan bai eramaten dut bazkideen ahotsa patronatura. Hortan inportantea da nik, edo hobeto esanda, nik ordezkatzeko dudana figurak egin dezakeen lana. Hala ere, bazkide gehienek ez dakitenez nire berri kexa gutxi izan ditut.

Lehenago astean jaso nuen azken hiru urteetan jaso dudana kexarik gogorrena. Bazkide bat etorri zitzaidan oso haserre

ostegunetako 8:30eko aerobik klasea ordu laurden moztu dutela esanaz. Berdin ordaindu eta orain ordu laurden gutxiago emango omen dute.

Beraz, badu zereginik bazkideen ordezkariak.

N. Azken urteotan egindako lanaren balantzea egiterakoan, pozik zaude Kirol Patronatutik egin den lanarekin?

J. Z. Lan on bat egin da nire ustez. Noski badaudela hobetzeko gauzak. Geroxeago aipatuko dut kiroldegia berrietzeko beharra.

Azken urtetako eginkizunik garrantzitsuena futbol zelaia berrikuntza izan da. Instalazio oso egoki batzuk bukatzeko bidean daude (aldagelak falta dira baina zelaian urtebete pasatxo da partidak jokatzen dituztela) eta dagoeneko nabarmendu da futbol taldearen gorakada. Lau talde eta uste dut lehenengo aldirerako mailan bi talde daude.

Beste berritasun garrantzitsu bat Eskola Kirolean eman da: orain arte Eskola Kirolean, entrenatzaile lanak, lehen kirol horretan ibilitako jendeak egiten zituen kirol bakoitzean.

Gazte batek talde bat hartzen zuen eta nola edo hala eramaten ziren aurrera entrenamenduak eta partidak. Gainera adin ezberdinetako lana ez zen oso ondo koordinatzen. Ondorioz zenbait gurasok kexa adierazi zuten. Kirol elkarteetan (ni pilota elkarteetan nago) eta Udarregi ikastolako kirol arduradunak ere konturatu ziren horretaz. Horregatik proposamen bateratu bat egin zitzaion Kirol Patronatuari. Ordura arte entrenatzaileen gastuaren parte handi bat patronatuak ordaintzen zuten. Beste partea umeek kuota baten bidez.

Patronatuari proposatu zitzaion pertsona bat kontratatzea lan-saio erdira kirol bakoitzean (futbola, eskubaloia, pilota) Eskola Kirola emateko. Patronatuak ordainduko zuen kostua, eta kontratua elkarteek egingo zuten.

Haserako gorabeherak tarteko futbol taldeak eta pilota elkarteak pertsona bana kontratatuta dute iazko kurtsoetik Eskola Kiroleko entrenamenduez arduratzeko.



AZKEN URTEOTAN JOKIN ZUBIAUR IZAN DA KIROLDEGIKO BAZKIDEEN ORDEZKARIA. EZ DU KARGUA BERRITUKO.

Futbolekin Iban Maritxalar usurbildarra ari da eta pilotan Ander Agirre donostiarra.

Nik uste dut salto kualitatibo handi bat eman dela honekin kirol egitura sendoak osatzeko bidean. Klub bakoitzean lotura estua dago entrenatzaileekin eta ikastolako kirol arduraduna den Unai Latailladek ikastolari dagokion koordinazio lana egiten du.

Klubaren, ikastolaren eta patronatuaren partetik bultzada handi bat eman nahi izan zaio Eskola Kirolari. Baina dena ondo joan dadin umeen eta gurasoen kolaborazioa ezinbestekoa izango da. Ez dut uste arazorik izango denik.

N. Azaroaren 5ean irekiko da hautagaiak aurkezteko epea. Baina ez duzu zure burua aurkeztuko. Zergatik?

J. Z. Lehen esan dudana bezala pilota elkarteetan sartuta nago. Politikagintzan ere banabil, eta beste zenbait gauzetan ere bai. Oraintxe, esaterako, dudana lanposturako lagungarri zaidan kurtso batean hasi naiz. Kontu gehiegi denak ondo eramateko. Horregatik pentsatu dut, beste norbaitek hobeto ordezkatzeko dituela bazkideak patronatuan. Ez dut nahi bileretara joaterik ez izatea eta horrelako kontuak, ez zait gustatzen erdipurdiko laguntzak ematea.

Jokin Zubiaur: "Kiroldegiak berritzea baino handitzea behar du; horrek ekarriko du berritasuna"

Kiroldegiaren etorkizunaz hitz egin genuen duela bi aste Lontxo Zubiriarekin, Kirol Patronatuko lehendakariarekin. Jokin Zubiaur, orain arte kiroldegiko bazkideen ordezkari izan dena, kiroldegia handitzearen aldekoa da, "handitzeak noski berekin ekarriko du berritasuna".

NOAUA! Kiroldegia berritu, handitu ala berria egin. Mahai gainean dagoen eztabaida da. Zein da zure iritzia gai honen inguruan?

J. Z. Nire ustez kiroldegiak berritzea baino gehiago handitzea behar du. Handitzeak noski berekin ekarriko du berritasuna. Zentzu horretan, maiatzeko patronatuko bileran nik egin nuen proposamen hau. Ez da oso azkarra izan beharrik azken urteetan kiroldegian inbertsio gutxi egin direla konturatzeko. Futbol zelaia erakuntzak eraman baitu kirol inbertsio guztia pasa den

legealdian.

Irailean egin zen bileran berriz aipatu nuen kiroldegia berritzearen beharra eta uste dut denak ados egon zirela horretan, patronatuko lehendakaria barne. Orain politikarien edo hobeto esanda udal gobernuaren txanda da. Noski, herri batek kirolaz gain beste behar asko ditu, ea kiroldegiaren berrikutza beren proiektu garrantzitsuenen barruan sartzen duten, erabiltzaileok biziki eskertuko dugu.

N. Aldiz, futbol zelai berria, inguruan dagoen egokienetakoa izango da. Azpiegitura egokiek ekarriko dute kirol munduaren indartzea, ezta?

J. Z. Noski baietz. Usurbil Futbol Taldeak aspaldi eskatu zuen instalazio egoki batzuen beharra. Orduan erantzuten zitzairen taldea indartzean etorriko zela zelai berriaren beharra. Futbol taldekoek erantzuten zuten instalazio



ZUBIAURREK AITORTU DUENEZ, "FUTBOL ZELAIK ERAMAN ZUEN KIROL INBERTSIO GUZTIA PASA DEN LEGEALDIAN".

egoki batzuek ekarriko zutela taldearen gorakada. Denborak arrazoia eman die futbolarietara eta kendu kontrakoa esaten zutenei. Horregatik oso inportantea izan da futbol zelaia erakuntza, eta jokalariek esan didatenez zelai gutxi dute kalitate horretako belar artifiziala. Akatsen artean esan, obrak behar baino gehiago atzeratu direla.

Bi atxilotu Labegoxo okindegian lapurtzen saiatzeagatik

Hernaniko Ertzaintxeko agenteek 18 eta 20 urteko gizonezko bi atxilotu zituzten urriaren 25ean goizaldean, Labegoxo okindegian lapurtzen saiatzea egotzita.

Goizaldeko hamabiak eta laurden aldera gertatu zen. Ordu horretan, Ertzaintzaren auto bati herriko Kale Nagusira joateko eskatu zioten, herri-tar batek dei baten bidez esandakoaren arabera okindegi baten barruan lapurreta egiten ari baitziren.

Ertzainak berehala joan ziren adiera-

zitako tokira eta, bertara iritsitakoan, lokalera sartzeko ateak kalteak zituela eta N-634 errepideetik ziklomotore bat zihoala ikusi zuten.

Jarraian, agenteak ibilgailu horretara hurbildu ziren, eta gazteen deskribapena zein ziklomotorearena berriemaileak emandako datuekin bat zetozela ikusita, geldiarazi egin zuten eta bertan zihoazen bi pertsonak identifikatu zituzten. Atxilotuetako bat hamahiru aldiz atxilotu dute orain arte. Hurrengo goizean jarri zituzten

Donostiako Guardiako Epaitegiaren esku.

Ertzainak atxilotu egin zituen biak, 18 eta 20 urteko bi gizonezko, lapurreta delitu bat egin izana egotzita. Ondoren, establezimenduaren barrua ikuskatuta, lokalera sartzeko atea alde metalikotik indarrez irekita eta kutxa erregistratzailearen kutxak lurrean zundela ikusi zuten.

Kale Nagusian dagoen okindegi honek lapurreta bat baino gehiago jasan behar izan du.

**Zuen
publizitatea
hemen**

943 360 321
publizitatea@noaia.com

Otar-Goxo
Elizagaia

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Errezeta ospetsua

Kaixo! LH 6. mailako ikasleak gara. Aurten ingeleran sukaldari bikainak izaten ikasiko dugu. Gaur Ameriketako errezeta ospetsu bat nola egin erakutsiko dizuegu. COME IT IS VERY EASY!

BROWNIES

INGREDIENTS:

- 150g butter



- 75g strong plain chocolate



- 75g flour

- Teaspoon salt

- 3 eggs




- 1 teaspoons baking power
- 340g sugar

- 150g nuts




PROCEDURE:

1. First, melt the butter and chocolate pieces in a saucepan.



2. Then, take the an off the heat, and stir in the sugar, flour, baking powder, salt, eggs and nuts with the wooden spoon.



3. Spread the chocolate mixture into the baking tray.



4. Bake in the oven for 30min. If you put a knife into the mixture it should come out cleanly.

5. Leave the mixture in the tray to cool for 10min. Then cut the mixture into squares.

6. Transfer the squares onto a wire rack to finish cooling.



7. READY TO EAT!

ANTXETA
taberna-jatetxea

logitartekoak
egunerako menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Pagazpe, Usurbilgo pilota elkarte berria

Usurbilgo Pagazpe Pilota Elkartea sortu berri da. Azken urteetan Andatzpe eta Peña Pagola elkarten izenean jokatu izan dute herriko pilotariak, baina denboraldi berriarekin batera klub berri honek hartu du bi elkarten lekukoa. Hala ere, ez da hauen eta talde berriaren arteko lotura hautsi, elkarlanean jarraitzen baitute Usurbilen pilota sustatu nahian.

Aspaldi adierazi zuten herrian pilota elkarte berri bat sortzeko nahia. Pasa berri den denboraldia hasi eta berehala NOAUA!ko orrialde hauetan bertan ematen zuten horren berri, eta urtebeteren ondoren martxan jarria dute elkarte berria. Burokrazia kontua izan zen egitasmo horretan aurrera egiteko bidea zabaldu ziena Jokin Zubiaurren esanetan. "Lehenago Andatzpe eta Peña Pagola elkarten menpe geunden, hau da bi elkarten menpe. Horregatik federazioak adierazi zigun klub edo elkarte bakar bat sortzea komeni zela. Gipuzkoako beste klub batzuk kexa adierazi zutelako eta klub bat sortuz gero federazioan burokrazia gorabeherak erraztuko zirelako. Nahiz eta praktikan klub bat bezala funtzionatu, fitxak bi elkarteren izenean zeudenez zesoak egiteko eta beste zenbait kontutarako arazok sortu zitezkeen".

Elkarlanean emaitza

Ez zen hori izan, ordea, elkarte berria sortzeko arrazoi bakarra. Dirudienaz Andatzpe eta Peña Pagolako zenbait kide pilota dela eta nekatuta xamar ere bazeuden. Honela bada, klub berria sortzeko pausuak ematen hasi ziren eta aurtengo denboraldia hasterako gauzatu dute egitasmo hori. Usurbilgo Pagazpe Pilota Elkartea da jarri dioten benetako izena, baina Usurbilgo Pilota Elkartea modura ezagunagoak dira, izen hori erabiltzen baitute.

Dena den, Jokin Zubiaurrek dionaren arabera orain arte pilotarekin lan handia egin izan duten bi elkarteekiko lotura ez da hautsi. "Elkarlanean jarraitzen dugu. 7 kidek osaturiko juntan esaterako elkarre bakoitzetik bina kide daude.



FEDERAZIOAK PROPOSATUTA BAT EGIN DUTE HERRIKO BI TALDEAK, ANDATZPE ETA PEÑA PAGOLA. PAGAZPE IZANGO DA PILOTA ELKARTE BERRIAREN IZENA.

Lehendakaria Jose Ramon Ibargoin da, Peña Pagola elkartekoa eta bere garaian pilotari izana".

Honela bada, denboraldi hasierarekin batera elkarte berriko kideek zenbait erabaki hartu dituzte dagoeneko. 2006. urtean abiarazi zuten laguntzaile kanpaina aurrean ez dute aurrera eramango. "Lehenengo urtean ondo atera zen, baina iaz ez zenez oso ondo joan denboraldi berriari begira laguntzaile kanpaina bertan behera uztea erabaki dugu. Hala ere, klubeko bazkide egiteko aukera hor egongo da, elkarteko edozein kiderengana gerturatu besterik ez dago".

Horren ordez, Usurbilgo Pilota Elkartea aurrera eramateko ezinbestekoa zaien dirua lortzeko beste ekimen batzuk jarri dituzte martxan. Dagoeneko kalean ikusiko zenituzten pilotari guztiak ageri diren egutegiak. 2 eurotan salgai jarri dituzte eta berau erosten dutenen artean Saizar eta Aginaga sagardotegietan bina pertsonentzako afari bana zozketatuko dira 2008 Urtarrilaren 5ean Loteriako zozketarekin bat datozen azken lau zenbakiekin. Bestalde, herriko pilotariak partidetan erabiltzen dituzten kamisetetan laguntzaile berriak izango dituzte datozen bi denboraldietan, Aginaga eta Saizar sagardotegiak hain zuzen ere. Horrez gain, azken bi urteetan frontoiko koltxoietan publizitatea jarri duten enpresa, taberna eta komertzioak dituzte, aurrean ere lagunduko dutenak.

JOSU ARANBERRI

Jon Carbayeda bikain

Lasarte Oriako krosean

Behobia-Donostia lasterketarako aste bate besterik ez da falta. Herriko hainbat kirolari 20 kilometro pasatxoko lasterketa prestatzen ariko dira eta azaroaren 11n Behobia lasterketa puntuan izango dira. Pasa den igandean, adibidez, prestakuntza horretan baliagarri izaten den Lasarte Oriako Bai! Herri Krosoa izan zen eta han ere usurbildar ugari bildu ziren. Horietako batek, gainera, emaitza bikaina lortu zuen, Jon Carbayeda iritsi baitzen laugarren postuan Okendoko helmugara.

Eskubaloia eta futbola

Oiardon eta Haranen

Asteburu luze honetan ere eskubaloia eta futbol partidak izango dira Oiardon eta Haranen. 1. Territorial mailako taldeak Urnietakoren aurka jokatu du, jubenil mutilek Egia Servi-Chap izango dute aurrez aurre eta neskek Zumaia Pulpoko taldea. Usurbil Futbol Taldeari dagokionez, 2. Errejonial mailako taldeak Axularren aurka jokatu du Haranen azaroaren 1ean arratsaldeko 17.00etan eta emakumezkoen taldeak Zarautz izango du aurrez aurre larunbatean.

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orre	Zarautz	Zarautz	Orre	Usurbil	Urbil	Donostia
07:40	>>	08:05	08:15	08:25	08:45	08:55	07:05	>>	07:30
08:10	>>	08:35	08:45	08:55	09:15	09:25	07:35	>>	08:00
08:40	>>	09:05	09:15	09:25	09:45	09:55	08:05	>>	08:30
09:10	09:30	09:35	09:45	09:55	10:15	10:25	08:35	>>	09:00
09:40	>>	10:05	10:15	10:25	10:45	10:55	09:05	>>	09:30
10:10	>>	10:35	10:45	10:55	11:15	11:25	09:35	>>	10:00
10:40	>>	11:05	11:15	11:25	11:45	11:55	10:05	>>	10:30
11:10	>>	11:35	11:45	11:55	12:15	12:25	10:35	>>	11:00
11:40	>>	12:05	12:15	12:25	12:45	12:55	11:05	>>	11:30
12:10	>>	12:35	12:45	12:55	13:15	13:25	11:35	>>	12:00
12:40	>>	13:05	13:15	13:25	13:45	13:55	12:05	>>	12:30
13:10	13:30	13:35	13:45	13:55	14:15	14:25	12:35	>>	13:00
13:40	>>	14:05	14:15	14:25	14:45	14:55	13:05	>>	13:30
14:10	14:30	14:35	14:45	14:55	15:15	15:25	13:35	>>	14:00
14:40	>>	15:05	15:15	15:25	15:45	15:55	14:05	>>	14:30
15:10	15:30	15:35	15:45	15:55	16:15	16:25	14:35	>>	15:00
15:40	>>	16:05	16:15	16:25	16:45	16:55	15:05	>>	15:30
16:10	>>	16:35	16:45	16:55	17:15	17:25	15:35	>>	16:00
16:40	>>	17:05	17:15	17:25	17:45	17:55	16:05	>>	16:30
17:10	>>	17:35	17:45	17:55	18:15	18:25	16:35	>>	17:00
17:40	18:00	18:05	18:15	18:25	18:45	18:55	17:05	>>	17:30
18:10	18:30	18:35	18:45	18:55	19:15	19:25	17:35	>>	18:00
18:40	>>	19:05	19:15	19:25	19:45	19:55	18:05	>>	18:30
19:10	>>	19:35	19:45	19:55	20:15	20:25	18:35	>>	19:00
19:40	>>	20:05	20:15	20:25	20:45	20:55	19:05	>>	19:30
20:10	20:30	20:35	20:45	20:55	21:15	21:25	19:35	>>	20:00
20:40	21:00	21:05	21:15	21:25	21:45	21:55	20:05	>>	20:30
21:10	21:30	21:35	21:45	21:55	22:15	22:25	20:35	>>	21:00
21:40	22:00	22:05	22:15	22:25	22:45	22:55	21:05	>>	21:30
22:10	22:30	22:35	22:45	22:55	23:15	23:25	21:35	>>	22:00

00:00 Azaroaren 2a

00:00 Azaroaren 2a

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orre	Zarautz	Zarautz	Orre	Usurbil	Urbil	Donostia
08:00	08:20	08:25	08:35	08:45	06:45	06:55	07:05	07:10	07:30
09:00	09:20	09:25	09:35	09:45	07:45	07:55	08:05	08:15	08:40
10:00	10:20	10:25	10:35	10:45	08:45	08:55	09:05	09:15	09:40
11:00	11:20	11:25	11:35	11:45	09:45	09:55	10:05	10:15	10:40
12:00	12:20	12:25	12:35	12:45	10:45	10:55	11:05	11:15	11:40
13:00	13:20	13:25	13:35	13:45	11:45	11:55	12:05	12:15	12:40
14:00	14:20	14:25	14:35	14:45	12:45	12:55	13:05	13:15	13:40
15:00	15:20	15:25	15:35	15:45	13:45	13:55	14:05	14:15	14:40
16:00	16:20	16:25	16:35	16:45	14:45	14:55	15:05	15:15	15:40
17:00	17:20	17:25	17:35	17:45	15:45	15:55	16:05	16:15	16:40
18:00	18:20	18:25	18:35	18:45	16:45	16:55	17:05	17:15	17:40
19:00	19:20	19:25	19:35	19:45	17:45	17:55	18:05	18:15	18:40
20:00	20:20	20:25	20:35	20:45	18:45	18:55	19:05	19:15	19:40
21:00	21:20	21:25	21:35	21:45	19:45	19:55	20:05	20:15	20:40
22:00	22:20	22:25	22:35	22:45	20:45	20:55	21:05	21:15	21:40
23:00	23:20	23:25	23:35	23:45	21:45	21:55	22:05	22:15	22:40

LARUNBAT GAUETAN

LARUNBAT GAUETAN

00:00	>>	00:25	00:35	00:45	23:15	23:25	23:35	>>	00:00
01:00	>>	01:25	01:35	01:45	00:15	00:25	00:35	>>	01:00
02:00	>>	02:25	02:35	02:45	01:15	01:25	01:35	>>	02:00
03:00	>>	03:25	03:35	03:45	02:15	02:25	02:35	>>	03:00
04:00	>>	04:25	04:35	04:45	03:15	03:25	03:35	>>	04:00
05:00	>>	05:25	05:35	05:45	04:15	04:25	04:35	>>	05:00
06:00	>>	06:25	06:35	06:45	05:15	05:25	05:35	>>	06:00

00:00 Azaroaren 2a

00:00 Azaroaren 2a

00:00 Azaroaren 2a

Zarautz	Orre	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orre	Zarautz
06:00	06:15	06:24	06:39	06:47	06:03	06:14	06:30
06:30	06:45	06:54	07:09	07:17	06:33	06:44	07:00
07:00	07:15	07:24	07:39	07:47	07:03	07:14	07:30
07:30	07:45	07:54	08:09	08:17	07:33	07:44	07:50
08:00	08:15	08:24	08:39	08:47	08:03	08:14	08:30
08:30	08:45	08:54	09:09	09:17	08:33	08:44	08:50
09:00	09:15	09:24	09:39	09:47	09:03	09:14	09:30
10:00	10:15	10:24	10:39	10:47	10:03	10:14	10:30
11:00	11:15	11:24	11:39	11:47	11:03	11:14	11:30
12:00	12:15	12:24	12:39	12:47	12:03	12:14	12:30
13:00	13:15	13:24	13:39	13:47	13:03	13:14	13:30
13:30	13:45	13:54	14:09	14:17	13:33	13:44	14:00
14:00	14:15	14:24	14:39	14:47	14:03	14:14	14:30
14:30	14:45	14:54	15:09	15:17	14:33	14:44	15:00
15:00	15:15	15:24	15:39	15:47	15:03	15:14	15:30
15:30	15:45	15:54	16:09	16:17	15:33	15:44	16:00
16:00	16:15	16:24	16:39	16:47	16:03	16:14	16:30
16:30	16:45	16:54	17:09	17:17	16:33	16:44	17:00
17:00	17:15	17:24	17:39	17:47	17:03	17:14	17:30
17:30	17:45	17:54	18:09	18:17	17:33	17:44	18:00
18:00	18:15	18:24	18:39	18:47	18:03	18:14	18:30
18:30	18:45	18:54	19:09	19:17	18:33	18:44	19:00
19:00	19:15	19:24	19:39	19:47	19:03	19:14	19:30
19:30	19:45	19:54	20:09	20:17	19:33	19:44	20:00
20:00	20:15	20:24	20:39	20:47	20:03	20:14	20:30
21:00	21:15	21:24	21:39	21:47	21:03	21:14	21:30
22:00	22:15	22:24	22:39	22:47	22:03	22:14	22:30
23:00	23:15	23:24	23:39				

■ Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN ■ Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN ■

■ Tren bideko autobusak ■

Bereziki erabiltzaileak: 902 54 32 10 www.euskoatren.es euskoatren@euskoatren.es

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 1, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 2, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 3, larunbata
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Azaroak 4, igandea
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Azaroak 5, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 6, asteartea
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Azaroak 7, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 8, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Azaroak 9, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 10, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Azaroak 11, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxebeste Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani 943 55 20 87
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia
TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazarik)

7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazarik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazarik)

11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da

*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Tren Orduetgia

Datorren ostegunean, antzerki saioa Sutegin

Datorren ostegunean hasiko da Kultur Hamabostaldia. Antzerki saio batekin abiatuko da NOAUA!k urtero antolatzen duen zikloa. Lakrikun taldeak "Eman bira" saioa eskainiko du Sutegin. Antzerki lan honetan, poesia eta antzerkiaren arteko loturaz hausnartuko dute. Poesia eta poetei tiraka, umorez eta egunerokotasunez betetako ikuskizuna da. Bizitzako zenbait egi barre algarekin nahastuta kontatzea du helburu. Nork esaten du poesia tristea eta ulergaitza dela? Antzerkia ez litzateke ezer poesia-

rik gabe, poesia ez litzateke ezer antzerkirik gabe ikuskizun honetan, hori da osteguneko emanaldiaren funtsa.

AZAROAK 8 OSTEGUNA

"EMAN BIRA", 20:00etan Sutegin.

ANTOLATZAILEA: NOAUA!

TALDEA: Lakrikun. Aktoreak: Igor Aranbarri, Kepa Urbietza, Gurutze Eizmendi eta Alaitz Olaizola.

SARRERAK: 5 euro (Txirristan eta NOAUA!ko egoitzan). NOAUA!ko Bazkideentzat, 3 euro, baina alde zuretik eta bakarrik elkarteko egoitzan.



DUELA BI URTE "GREBAN GAUDE"

ANTZEZLANA ESKAINI ZUEN

TALDEAK BISITATUKO GAITU

DATORREN OSTEGUNEAN.

Agenda

Azaroak 1 osteguna

- Artisautza Azoka Usurbilgo frontoian. 11:00etatik eguerdira arte.

Azaroak 4 igandea

- Erle Eguna. Goizeko 10:00etatik aurrera. Euskal Herriko Ezti Lehiaketa, azoka, dastaketa, gozogintza lehiaketa, enkantea... Pirritx eta Porrotx pailazoek ezta banatuko dute.

Azaroak 5 astelehena

- Odola emateko aukera berri bat. 19:00etatik 21:00etara anbulatorioan.

Azaroak 8 osteguna

- Pello Añorga ipuin kontalaria 18:00etan udal liburutegian, Sutegin. Sarrera: doan. Norentzat: 5 urteko umeentzat.
- "Eman bira" antzezlan Lakrikun taldearen eskutik, 20:00etan Sutegin. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Hamabostaldia.

"Komunikazioa eta familia"

hitzaldi zikloa Udarregi ikastolan

Joxe Amiama psikopedagogoak eskainiko du zikloa. HH eta LHko ikasleen gurasoentzat bi saio izango dira: azaroaren 7an eta 21ean, asteazkenez. Ordua: 17:00-18:30. Hautzaindegi zerbitzua izango da. DBHko ikasleen gurasoentzako hitzaldia, ordea, azaroaren 14an izango da. Antolatzailea: Hitz-Aho guraso elkarte.

Astelehenean, odol-ematea

Datorren astelehenean, azaroaren 5ean eta arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, odola emateko aukera berri bat izango da. Ohiko odol emaileek abisua jasoko dute, baina odol emaile berriak ere ongi etorriak izango dira. Hori bai, lehen aldiz odola ematen duenak baldintza hauek bete behar ditu: 18 urteak beteak izatea eta oraindik 66 urte bete gabekoa izatea, 50 kilo edo gehiago pisatu, eta osasunez ondo

egotea.

Botikaren bat edo beste hartuz gero, jakinarazi egin behar zaio odol-ematean izango den medikuari.

"Munduan gero eta aurrerapen gehiago, baina oraindik odola ordezkatzeko duenik ez da asmatu, eta horretan gara guztiok oinarritukoak", adierazi digute Odol Emaileek. Ohi bezala, azaroaren 5ean, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara Osasun Etxean (anbulatorioan, alegia).

KzGuneko ikastaroak azaroan

Azaroak 5- azaroak 16

- Internet KZgunea ikastaroa (gazteleraz). Astelehenetik ostiralera, Ikastaroaren ordutegia: 16:00-18:00.

Azaroak 7 asteazkena

Mintegia. "Sinadura elektronikoa" (euskaraz). Ordutegia: 18:00-19:00.

Azaroak 7 asteazkena

Mintegia. "Zure kanala sintonizatu" (euskaraz). Ordutegia: 19:00-20:00.

Azaroan, ordutegia: 16:00-20:00.

Azaroak 14 asteazkena

Mintegia. "Kontsumitzailea Sarean" (gazteleraz). Ordutegia: 18:00-20:00

Azaroak 9 ostirala

- IT Txartela, azterketa eguna. Ordutegia: 18:00-20:00.

Azaroak 13 asteartea

- IT Txartela, azterketa eguna. Ordutegia: 18:00-20:00.

Telefono zenbakia: 943 36 14 12.

ETXEBIZITZA

- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Usurbilen 2 logelako etxe bat daukagu alokatzeko. 620565731.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Hiru logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 943 36 02 45 / 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. 687 650 066 (Maria).
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.
- Garaje itxi bat alokatzen dut Artzabalen. 647 120 253.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zer-

bitzari baten bila gabilta. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da, egunero lauzpabost ordu lan egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 687348223.
- Fisikako ikaslea, uda honetan matematika eta fisikako klaseak emateko prest. 943 37 12 77 / 685 772 602 (Nerea).
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak

zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Ingelera emango duen irakasle bat behar da Zubietan, asteen behin edo bitan klaseak emateko. 943 36 07 59 (Pello).
- Zilar edo urre zuriko lepoko bat topatu genuen uda partean eta udaltzaingoa utzi dugu. Galdutuenak han galde dezake.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Añiamendi enziklopediaren 80 tomo salgai: 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena hornitua, ASR... 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, honako telefono zenbakira deitu bulego orduetan: 943 360 321/ erredakzioa@noaua.com

HILDAKOAK

Juan Miguel Pagola Garin
Urriaren 16an hil zen 78 urterekin. Kalezarren.



Zorionak Aitor!

Bat, bi, hiru, sardíña bakalau... Aitortxok 4 urte urriaren hamalauan. Zorionak familia osoaren partetik.



Zorionak Nora!

Gure etxeko neskak 8 urte egiten ditu azaroaren 2an. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak aita!!

Ze ondo pasako degun denok elkarrekin zure urtebetze egunean... Muxutxuak eta besarkada goxo bat maitia.



Zorionak gure printzesari!

Amatxo, aitatxo eta amonen partez. Ondo pasa!



Zorionak bikote!
Beno hemen zaudete ahizpak urtiak ospatzen... Poliki poliki zuek ere goraka zoazte!



Zorionak Eneko, Aritz!

Batak urriaren 22an eta azaroaren 5ean besteak jada hamarna urte. Zorionak eta besarkada bana... Mutil onak izan.



Azaroaren 3an amona
Doloresen urtebetetzea da. Jarraitu horrela urte askoan muxu pillo bat biloba guztien partetik.



Zorionak Markel!

Azaroak 5ean 3 urte beteko ditu gure etxeko mutilak. Zorionak eta muxu handi bat denen partez.



Azaroaren 2an bi urte handi!
Ez al haiz azkarregi hazten ari? Txokolate mordoak janez ospatuko diagu, ezta? Muxu pila bat maite zaitugunon partez.



JOSE AZPURUA
UNAJUE

TELATUAK • FATURAK

Polare kalea 14. I. solairu-Ortu
943 36 13 89

Ortu kalea 24. Arretzu
943 60 68 53

URDINTZI S.L.
IGELTSERITZA

943 367 264
649 435 475
649 435 476

Errazkin S.L.
IGELTSERITZA OROKORRA

943 372 679
649 435 470

Kale Nagusia 47. behe A

Josue
Aranzazistroki

943 360 550
606 372 105

Don Jose erria 1. solairu

XUKIN
IGELTSERITZA OROKORRA

663 087 671

Erruka Txiki 6. TB

Antonio
URRIZOLA

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510

Asteasuain Industriakoa. 3

BEREZIARTUA
SL

egitura eta
egur-aluminiozko
leihorak - eskailerak
Agindat 943 571 571

BARRENETXE

Bakarmendi Arrol. Imanol

Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002

Barren Ene Kalea
ZUBIETA

Josetxo
Ikotzeta

687 951 225

Lataillade

gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

Portularrume

Bainuko altzairuak
Manparak

943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

Javier
Orbegozo

Gasa-berokuntza

659 602 789

Erruka Txiki 13. Beak

FERNANDO

PINTURAK

enpapelaketak

lurzoruak...

943 366 019

IZAGIRRE

943 365 095

609 068 111

6012 424 ETXEA 37
KALEZAR

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti

Industria instalazioak korporaketak

943 361 380
629 272 859

Borda Ierri 5 behe

ofizioen gida

IGELTSERITZA

EROTZE-GIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTRIZITATEA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaia.com



Azaroak 8,
osteguna 20.00h
Lakrikun
taldearen eskutik
"EMAN BIRA"
Antzezlanak
Azaroak 9,
ostirala 22.30h
G O S E
taldearen
kontzertua

Noaua! Kultur hamabostaldia

2 0 0 7 k o a z a r o a

sarrerak salgai Noaua! eta Txirista tabernan.
Bazkideek Noaua!ko egoitzan merkeago izango dituzte.

